

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioak gure bezeroa definitzen laguntzen digu eta produktua norentzat zuzenduta egongo den.

Gure ustez, bezero ideala zehaztea komenigarria da, horren arabera erabaki ezberdinak hartuko ditugulako. Gure produktua edonork eros dezake, baina guk bezero mota ideala definituko dugu, hau da, norentzat ari garen lan hau egiten. Gainera, beste bezero motak ez ditugu alde batera utziko, proiektua handitzen eta aurrera jarraitzen laguntzen baitigute.

Enpresak aurrera egiteko bezeroak lortzea funtsezkoa da, hain zuzen ere, gure enpresaren erdigunea dira. Gure bezeroa merkatu masiboaren parte da, hau da, arazo edo behar antzekoak dituzten pertsonak, gure kasuan uraren faktura pisutsua duten eta ingurunearen etorkizuna hobera aldatu nahi duten haientzat bideratuta dago. Haien helburu nagusia gastuak gutxitzea da eta horrekin batera faktura murriztea, urteen poderioz gora egiten ari dena.

Beste alde batetik, bezero ekologistak aurreikusten ditugu, hala eta guztiz, gure produktuak natura zaintzen duelako. Halaber, ondasun bakar batekin ekosistemari laguntzen diogu, aurrera pausu handi bat emanez.



Bezeroak etxebizitza izatea oinarrizkoa da, iturria instalatzeko lekua behar delako. Horrez gain, orokorrean, etxebizitza bakoitzean pertsona ugari bizi da eta gehiago izateak gehiago kontsumitzen du, ondorioz ur kantitate handiagoak aurreztuko dira eta gure produktuari baliagarritasun gehiago emango zaio. Horregatik, 35 urte baino gehiago dituzten pertsonak produktuaren erosle izango dira, bizitza egonkor bat dutelako eta familia baten

parte direlako.

Ildo beretik, adibidez, familia ugariak gure enpresaren bezero talde potentzial handi bat dira; izan ere, haien gastuak altuagoak dira eta ur kantitate handiagoa kontsumitzen dute haien egunerokoan. Aitzitik, bakarrik bizi den pertsona batentzat ez luke zentzu handirik izango, ur litro kantitatea ez delako hain esanguratsua eta hauek murrizteak ez luke eragin handirik izango naturan.



Gure bezeroak euskaldunak dira; izan ere, enpresaren hasierako asmoa Euskal Herri mailan eskaintzea da. Instalazioa aurrera eramateko, gugandik gertu dauden etxeetan jartzea erabaki dugu, haien esperientzia gertutasunetik bideratzeko. Horrek, eskusibitatea, segurtasuna eta bermea eskainiko dizkio bezeroari, tratu adeitsu bat mantenduz.

Esan dugunagatik, bezero mota hau izango da ideala, proiektuak arrakasta izan dezan eta gure enpresa multinazional bihurtzeko edo behintzat irabazi batzuk lortzeko.